

OINAK
BIDEAN,
BIHOTZA
ADOREZ



DOMUND 2023

Aita Santuaren Misió Ekintzak



DOMUND 2023



URRIAK 22 – DOMUND 2023

Oinak bidean, bihotza adorez

Emaiozu kartazalari

Margotzeko orri hau berezi samarra da ikus dezakezunez. Berarekin zure kartazal pertsonala egin ahalko duzu DOMUNDerako zure laguntza eman ahal izateko.

Ezer baino lehen **marrazkiak** zure gustora **margotu** behar dituzu. Egin al duzu honezkero? Orain **kartazala prestatu** beharko dugu. Aurrena moztu beharko dugu eta ondoren atzeraka tolestatu beharko ditugu alboetako bi ertzak. Ongi markatu ahal izateko, bi marrazkien artean dagoen arrastoari jarraituz tolestatu behar dugu, elkarri bizkarra emanez gelditu arte. Berriz zabalduko dugu, ertzetan kola jarriko dugu eta haien gainean kartazalaren atzeko parte itxatsiko dugu. Prest duzu zure diru-laguntza sartu ahal izateko! Ondoren, kartazala ongi itxia uzteko, tolestatu ezazu goiko ertza, kola jarri ilundutako tartean eta ertza itsatsi ezazu.

DOMUNDerako zure **diru-laguntza** eskolara edo parrokiara **eraman** dezakezu.

Eragiozu pixka bat buruari

Badago Bihotz bat geure bihotza maitasunez adoretu egiten duena. Ba al dakizu norena den? Ezagutzen al duzu Bihotz hori azaltzen duen irudiren bat? Kartazal honetan ikusten al duzu?

Jesusen Bihotzean zu ere al zaude? Munduko hainbat lekutan bizi diren haurrak al daude? Pobreak, behartsuak, ahaztuak, Hari buruz entzun ez dutenak al daude?

Zergatik jartzen dituzte oinak bidean misiolariak? Bihotzean Jesus al daramate? Nola dakizu? Zer egiten dute?

Eta Jesus, zure bihotzean al dago? Nola sumatzen duzu? Nola adierazten diezu besteei Jesus zure barruan ere dagoela?

Misio-asmo bat pentsatu eta hemen idatzi: "Jesus, oinak bidean jarri nahi ditut honetarako"
....."